

# Kazetariak eta heziketa profesional iraunkorra

**Eguzki Urteaga**

**Soziologian doktoregaia, Historian lizentziatua**

Artikulu honen helburua, kazetarien heziketa profesional iraunkorra (FPI) aztertzea da eta, zehazkiago, berak duen garrantzia kazetarien heziketa orokorrean. Orain arte, ikerlariak gai horretaz aldenitu dira eta, interesatu direnean, hasierako heziketa hobetsi dute, hots, unibertsitatean zein kazetari-eskoletan lortzen diren diplomak. Nire helburua hutsune hori betetzea da, Frantziako eta bereziki Pirineo Atlantikoetako (Ipar Euskal Herria eta Biarnoa barne) kazetarien FPI jorratuz. Nire hipotesiaren arabera, kazetari horien heziketa profesional iraunkorrak mutazio bat jasan du, dispositibo (heziketa indibidualerako oporra, heziketa plana, heziketa-hitzarmena, aldizkaketa eta gazteen gizartean eta lan-munduan sartzea, luzaroan langabezia daudentzako heziketa), organismo, eskaera (enpresaburuak, sindikatuak, kazetariak) eta publikoen biderkatze eta ezberdintzeak eragina.

The objectif of this article is to analyse the formation profesional continu of journalists and, more precisely, his place in the general formation of journalists. Up to now, when searchers are interested on this subject, they have preferred the initial formation, that is to say, diplomas obtened in universities and journalism schools. My objectif, is to fill up this empty, studing the formation profesional continu of France and, particulary, Pyrenees Atlantics journalists (north of Basque country and Bearn included). According to my hypotesis, the formation profesional continu has known a mutation with the multiplication and diversification on dispositifs (individual formation hollidays, formation plans, formation conventions, formations for unemployed) organisms, requests (chiefs of enterprises, syndicates, journalists) and publics.

## 0. Sarrera

Sarreran esan dugun bezala, artikulu honen helburua kazetarien heziketa profesional iraunkorra (FPI) aztertzea da eta, zehazkiago, kazetarien hezkuntza orokorrean duen garrantzia aztertzea. Orain arte, ikerlariak gai horretatik aldendu dira eta, interesatu direnean, hasierako heziketa hobetsi dute. Nire helburua hutsune hori betetzea da, eta, horretarako, Frantziako eta bereziki Pirineo Atlantikoe-tako (Ipar Euskal Herria barne) kazetarien FPI jorratzea. Nire hipotesia da kazetari horien heziketa profesional iraunkorrak mutazio bat jasan duela, dispositibo, organismo, eskaera eta publikoen biderkatze zein ezberdintzeak eraginda.

## 1. Dispositiboak

70.eko hamarkadatik gora, heziketa profesional iraunkorreko dispositiboak biderkatzen eta ezberdintzen joan dira langabeziaren garapenari, konpetentzien goratzeari, ekonomiako sektoreen berrantolaketari eta prentsa-enpresen informatizazioari aurre egiteko. Hori dela eta, botere publikoek lege berriak sortu dituzte.

### 1.1. Heziketa indibidualerako oporra (FIO)

FIO nozioa 1966ko lege-egitarauan agertzen da lehendabizi, «heziketa profesionala eta gizarte-sustapena» antolatzeke. «Langile bakoitzari emana zaion eskubide gisa definitzen da, bere inizatibaz, lana utzi eta ordu normaletan aukeratutako ikastaro batera joateko». 1970ko uztailako akordio interprofesionalak heziketa betetzeko erak zehazten zituen. Kazetariak, huts egiteko baimena eska zezakeen, denbora oso ala ez osoko ikastaro bat egiteko. 1971ko uztailako legeak akordioaren norabideak bereganatzen ditu, baina eskubidea berradierazten du eta, batez ere, eskubide berriari finantzazioa lotzen dio: «opor horretaz gozatzen diren langileek beren nagusien ordainketa jaso dezakete; estatuak ere parte har dezake». Alabaina, aukera da eta ez eskubidea.

Heziketa indibidualerako oporra marjinala zela ohartuz, sindikatu eta erakunde nagusiek, 1982ko irailaren 21eko adostasunean, erabaki komun batera iritsi ziren FIO-ren finantzazioa zein antolaketa birmoldatzeko. 1984ko otsailako legeak bereganatuko ditu. Legearen arabera, enpresek zati bat (langile-masaren % 0,1) derrigorrean FIO-ren finantzazioari lekoratu behar diote; ekarpena biltze-organismo onetsi bati emana zaio (OPACIF: *Organisme Paritaire Agréé au titre du CIF*) eta bere kargu da fondoak gestionatzea eta heziketa eskaerak aztertzea; oporraren eskubidea 10 langile baino gutxiagoko prentsa-enpresei hedatua da, baita lan kontratu berezia duten kazetariei ere; estatuak eta erregioek FIOren ordainketan parte har dezakete, besteak beste, komunikabide txikien langileentzat eta gutxien kalifikatuak direnentzat.

1991ko uztailaren 3ko akordio interprofesionalaren arabera, aktore sozialak ados jarri dira heziketa indibidualaren oporrari esleitua zaion dirutza langile-masaren % 0,2ra igotzeko. Une berean, testu horiek konpetentzien bilanako oporra martxan jartzen dute. Horren arabera, kazetariak (zahartzaro eta bilan profesional eta pertsonalaren eratzearen baldintzapean) egitasmo profesional ala heziketa-proiektu bat zehatz dezakete. Opor hori heziketa-plan edo FIOren barnean koka daiteke.

## 1.2. Heziketa planak (FP)

Frantziako legediaren arabera, 10 langile baino gehiagoko prentsa enpresek, heziketa iraunkorrera, gutxienez, langile-masaren % 1,5 bideratu behar dute urtero eta ekarpen hori egiaztatu behar dute botere publikoei egiten dieten adierazpen baten bidez. Horrekin batera, datu estatistikoak osatzeko ezinbestekoa izateaz gain, enpresa-komitearen erabakia (ahozko epaiketa) edo, gutxienez, "gabezia-oharra" ematea derrigorrezkoa da. Prentsa-enpresa txikietan heziketa iraunkorra garatzeko, 1991ko legeak, egin behar hori, 10 langile baino gutxiagoko enpresetara hedatu du, baita kazetari independenteei ere. Azken horiek, 1992tik gora, beren langile-masari % 0,15 eta segurtasun sozialeko % 0,25 urtero heziketa profesional iraunkorrari eman behar diote. 1994ko uztailaren 5eko akordioak betekizuna % 0,25era emendatu du 1995tik at.

1971ko uztailleko legeak prentsa-enpresek FPI finantzatzeko alorrak zehazten ditu. Lehenik, pertsonalaren heziketa-akzioak finantzatzea; horrek ikasleen funtzionamendu, tresneria eta soldata-gastuak bere gain hartzea inplikatzan du; prozedura hori erabil daiteke prentsa enpresan bertan heziketak antolatuz edo hezkuntza organismoen hitzarmenetatik igaroz. Bigarrenik, segurtasun-heziketa fondoaren (AFF) finantzazioari laguntzea, erakunde paritario horiek nagusien eta langileen kotizazioak jasotzera baimenduak baitira, heziketak antolatu ahal izateko. Hirugarrenik, informazio zein ikerketa berezietan estatuak onesten dituen erakundeak ordaintzea (% 10eko muga).

Heziketa-plan nozioa lehendabizi 1975eko abenduko legean agertzen da eta 1978ko uztailleko legeak berriro hartzen eta zehazten du: «enpresa-komiteak urtero bere iritzia ematen du lehengo urteko pertsonalaren heziketa-planaren egitean, bai eta datorren urterako planaren egitasmoan ere». Beraz, enpresa-komitearen galdeketa nahitaezkoa da. Legeak, enpresaburua behartzen du hautetsiei zein langileen ordezkariari informazio zehatzak ematera heziketen mami zein naturari, izena emana duten kazetarien ezaugarriari, heziketa-erakundeekin izenpetuak diren hitzarmenei eta egindako zein pentsatutako gastuei buruz.

1984ko otsailean bozkatutako Auroux legeak enpresa-komitearen galdeketa eta negoziazioaren obligazioa azpimarratzen du. "Heziketa profesionalaren helburuak eta medioak" eztabaidatzeko parada eskaintzen du, sektore eta enpresa mailetan. 1991ko lege edo adostasunak sektore mailako bost urteko negoziazioak izan behar dutela deritzo eta prentsa-enpresa bakoitza bultzatzen du heziketarako urtebete baino gehiagoko planak eratzera. Hala delarik, enpresa-komiteari aurkezten zaio da edo langileen ordezkariekin finkatzen da sektoreka, hitzarmenak hala suposatzen badu behintzat.

Bortxazko negoziazioa honako puntuen inguruan antolatzen da: heziketa akzioen natura eta bere lehentasun ordena; heziketa ekintzei esker lortutako kalifikazioen ezagupena; ordezkari sindikatuei zein enpresa-komiteen kideei ezagutuak zaizkien medioak beraien misioaren ekintzan; gazteen harrera eta insertzio-baldintzak prentsa-enpresetan heziketa arloan; gutxi kalifikatuak diren kazetarien alde egindako heziketa-indarrak; heziketaren aurrean gizon eta emazteen arteko berdintasunaren ezagutzea; prentsa-enpresa txiki eta ertainek aurkitzen dituzten heziketa-arazoei emandako aterabide bereziak; heziketa-beharrak lan-denboran

eta lan-antolaketan dituen egokitze-mekanismoen ondorioak; heziketaren dimentsio europarraren kontu hartzea; sektoreko akordioa enpresek nola aplika dezaketen ikustea.

Egokitzeek heziketa-arazoak enpresaren zein sektorearen helburu ekonomikoak eta mutazio teknikoak lotu nahi dituzte. Era berean, sindikatuen ikuskatzeko gaitasuna indartzen dute, besteak beste, ordezkariari ematen zaizkien medioak sartuz. Sindikatuen proposatzeko ahalmena areagotzen du, ez soilik menpeko aktore izanik. Zeren, maiz, espezialisten arazoak bilakatzen dira, zuzendaritza eta heziketaren arduradunek planak egiten baitituzte eta kazetariak ez baitute denbora edo ahalmen nahikorik dosierak segitzeko. Ondorioz, ordezkariak ez daukate kontrol zorrotza edo proposamenak egiteko gaitasunik.

### **1.3. Heziketa-hitzarmenak**

60.eko hamarkadatik gora, heziketa-hitzarmenek garapen nabarmena izan dute. Lau bereiz daitezke. Lehena, heziketa eske dagoen prentsa-enpresa baten eta heziketa-erakunde publiko edo pribatu baten artean pasatzen da. Aukeratutako organismoari eskatzen dio hezkuntza-ekintzak burutzea bere kazetari zenbaitentzat. Hitzarmena bi aldeko kontratu bat da, normalean oso zehatza, eta «eskatzen duenaren benetako beharrei heziketa eskaintza konkretu bat egokitzen dio». Baina, komunikabide gehienetan, hitzarmen soil batera mugatzen da, non kontratuaren izaera, funtsa eta iraupena, alde batetik, eta, kazetari-kopurua, banako prezioa eta orokorra, beste aldetik, zehazten diren. Kasu zenbaitetan, dimentsio pedagogikoak zehaztuak dira, bai eta neurtzeko moduak ere.

Bigarren hitzarmena prentsa-enpresa batek FAFekin batera egiten duen kide-tzarekin suertatzen da. Kidetzak parte-hartze beharrezkoaren ordainketa askagarriari inplika ditzake. Kasu horretan, FAFak, heziketak erabakitzen eta antolatzen ditu kide diren komunikabide edo independenteen alde. Paritarioa denez, FAFen Administrazio Kontseiluak lotuak zaizkion nagusi eta ordezkari sindikalak integratzen ditu.

Hirugarren hitzarmena, 1971ko legeak aipatu gabe nagusiek bultzatzen dutena, enpresen eta erakunde profesional baten arteko hitzarmen multilateralean datza. Erakunde profesional horrek heziketarako fondoak bildu, kide diren prentsa-enpresak aholkatu, organismo batzuk aukeratu eta, kasu batzuetan, heziketa batzuk antotzen ditu. ASFO sistemak (*Associations de formation patronales*) nagusien eta beraiek sortu zein kontrolatutako heziketa-zentroen arteko lotura sendoak ahalbideratzen ditu. Ez dira paritarioak, patronalek sortzen baitituzte. Hala ere, 1984ko otsaileko legeak, ordezkari sindikalen presentzia ezartzen du ASFOko hobetze-kontseiluetan.

Laugarren hitzarmena erabat ezberdina da, eta estatu zein kolektibitate publikoen laguntza gauzatzen du. Heziketa pribatu edo publikoa izan daiteke, heziketa promozionalaren departamendu- eta erregio-komiteen bidez. Elkarte eta kolektibitate lokalen eskaeratik etor daitezke. Horrelakoetan, hitzarmen hirukoitza da (eskatzai-lea, eskaintzalea eta finantzatzailea). Finantzazioa konplexuagoa izan daiteke, eta estatuak, enpresak eta sektoreak parte hartzen dute.

#### **1.4. Aldizkaketa eta gazteen insertzio sozial zein profesionala**

1971z geroztik, FPI sistemaren birmoldaketa heziketa profesional inzialaren aldaketarekin bat joan da. Uztaileko legeak FPI-ren garapenarekin batera ikasketaren legea moldatu du. 1978ko erreforma gazteen lanaren aldeko paktu nazionalen garaikidea da eta, 1980ean, aldizkaketaren inguruko lege bat emango du. 1983-1984an antzeko fenomeno bat suertatu zen, 1982ko irailean FPIri buruzko akordioa osatua baita heziketa aldizkatuei buruzko adostasun berezi batekin. 1991ko legeak 1984koak finkatutako aldizkatutako heziketak bere gain hartzen ditu.

Batetik, kalifikazio-kontratuak. 16 eta 25 urte bitartean dituzten gazteei zuzenduak dira eta helburutzat dute, lan-kontratu baten barnean eta sei hilabete zein bi urteren arteko epean, kalifikazio profesional ezagutu bat lortzea eta hitzarmen kolektiko baten bidez gutxienez lan kontratuaren iraupenaren laurdena duen irakaskuntza bat eskaintzea. Bestetik, lanerako egokitzeko kontratuak. 16 eta 25 urte bitartean, hasierako heziketa amaitu eta lan-kontratu, mugatua ala mugabea, duten pertsoneri irekia zaie.

Langabezi arazoan aurrean, 1976-1977tik gora, estatu frantsesak bere indarrak gazteen lehen lanpostua lortzera norabidetu ditu. Prentsa-enpresak indarrari erkidetuak dira, eta % 0,2ko derrigorrezko ekarpena ordaintzen dute. Maila apaleneko diplomatuak eta esperientzia profesional gabekoak direnez, aldizkaketa pedagogikoaren formula (enpresa-ikastaldiak barne) pixkanaka nagusitzen da. 1989ko maiatzean, heziketa-kreditua martxan jartzen da. Eskola-sistema goizegi utzi duen edozein kazetariri edo lortu nahi zuten heziketa-mailara iritsi ez direnei ezagutza ikasketa berriro hasten uztea da helburu orokorra. Gazteentzat, ia estatuarekin pasatzen duten kontratu bat da, bakoitzak ibilbide indibidualizatu bat egin eta diploma bat lor dezan.

#### **1.5. Heziketa eta luzazko langabezia**

Kazetarien langabeziaren luzapenarekin, batez ere 1990.eko hamarkadan, botere publikoek berrinsertziorako laguntzak biderkatu dituzte. Gehientsuenek, heziketa uneak dituzte. Lehenik, insertziorako eta heziketarako ikastaroak daude. Aspalditik langabezian dauden kazetariei baita prekarietate-egoera latzenak ezagutzen dituztenei ere irekiak dira. Bigarrenik, prensa-enpresara iristeko ikastaroak daude eta heziketa osagarri baten ostean asetuek (40 eta 500 ordukoa) ez diren lan-eskaintzei erantzuteko aukera daukaten lan-eskatzaleei zuzenduak dira. Hirugarrenik, lanera itzultzeko kontratuak daude. Luzaroan langabezian dauden kazetariei, 50 urte baino gehiago dutenei, RMI daukatenei eta kontratu berezia dutenei zuzendua zaie. Kostua bere gain hartzen du. Laugarrenik, Enpleguaren Fondo Nazionalaren heziketa hitzarmenak azpimarra daitezke. Langabezian aspalditik dauden kazetariei eskainia zaie, diren heziketak lortu ahal izateko.

Dispositibo guztiek, diru laguntza zuzenak edo ez, berrinsertzio eta heziketa helburuak apailatzen dituzte. Bi logika batzen dituzte: asistentzia eta kokatzea, ANPEren eginbeharrak antolatzen dituen erara. Beraz, heziketak bi helburu ezberdin betetzen ditu: langabezian dauden kazetariak bergizarteratzea eta berkalifikatzea lana aurki dezaten.

## 2. Eskaerak

70.eko eta, batez ere, 80.eko hamarkadatik at, heziketa profesional iraunkorraren eskaera emendatzen joan da komunikabide arloan. Kazetariak, prentsa-enpresaburuak zein sindikatuek FPIren garapenaren kontzientzia hartu eta, ondoren, presioa egin dute arrazoi eta modu ezberdinetan.

### 2.1. Enpresaburuak

70. hamarkadatik gora, prentsa-enpresaburuak konturatzen dira kazetarien kompetentziak “giza kapital” bat osatzen dutela eta komunikabidearen garapena giza baliabideen gestio arrazionalari lotua dagoela. Heziketari esker, kazetariaren garapen pertsonala eta emankortasuna emendatzen direnez, kazetariaren zein enpresaren interesak bat doaz. Patronalak berak dio FPI ez dela soilik kostu bat, baizik eta baita giza baliabideen gestioaren osagai aktibo bat ere, aldaketa teknologiko eta lehiaren exigentziei pertsonalaren egokitzea ahalbidetzen duena.

Nagusi-erakundeek ASFOn sorrera bultzatu dute kide diren enpresen fondoak bilduz menpe dituzten heziketa organismoak finantzatzeko. Ez du esan nahi erakunde horiek ez dabilzala erakunde publikoekin lankidetzan, jakinik diploma profesionalen epai-mahaietan parte hartuz irakatsitakoaren mamia negoziatzeko ahalmena dutela. Horrela, heziketak, prentsa enpresen beharretara egokitzen dituzte.

Oro har, heziketa iraunkorra, zuzentze-tresna bilakatzen da. Enpresaburuak helburua, heziketa lanaren aldaketari lotzea da kazetarien emankortasuna areagotzeko eta “klima sozial” egoki bat sortzeko. Era berean, heziketaren bidez, erredakzioak integratzeko eta enpresa-kultura garatzeko modu bat da. Are eta gehiago, jakinez gero ikastaroak ez dutela klase magistral baten itxura hartzen, talde-teknika, errol-joko, tokiko ikaspen eta hausnarketa kolektiboaren antza baizik.

Hala ere, komunikabide txiki zein tradizional askok (irradi lokal municipalak eta elkartekoak, egunkari zein astekari lokalak) oraindik heziketa kostu bezala baizik ez dute ikusten eta ez diote komunikabidearendako interes zuzenik asmatzen. Nahiago dute dirutza kazetarien behar materialetara bideratzea (soldaten emendaketa, gainsarien eransketa) eta beren egokitze puntualei ematea, batez ere aldaketa teknologikoari (informatizazioa eta numerizazioa), animazio erredakzional berriari edo kazetarien gestioari.

Kasu guztietan, heziketaren erabilera pragmatismoari eta abaguneari lotuak dira. Alabaina, aldaketa historikoa nabari da. 1975 arte, heziketa ezberdinak eta esperimentalak nabarmen hazi badira ere, 80.eko hamarkadatik gora, prentsa-enpresaburuak kontrol zorrotza ezarri diete heziketa-planei, eta ikastaro motz eta segidan baliagarriak hobetsi dituzte. Geroztik, bi moten arteko oreka bat bilatzen saiatu dira. Baina, alde handia dago komunikabide handi eta txikien artean, bai eta prentsa-enpresa publiko eta pribatuaren artean ere.

80. eta 90.eko hamarkadetan, heziketa enpresaburuaren diskurtsoaren funtsezko osagai bilakatu da. Komunikabidea benetako hezkuntza-sistema bilakatu behar da eta kazetarien FPI garatzea prentsa-enpresaren logikan zentrala da. Kompetentziari aurre egiteko ezinbestekoa da kazetariak hezitzea eta beren

autoheziketa bultzatzea lan profesionalari (material berriaren erospena) eta ezagutzaren zientifikoei loturik izan dadin. Halaber, kazetariaren mobilizazio kolektiboaren inguruan uztartu behar da, egunkariaren kalitate orokorra hobetzeko eta erredakzio-talde lehiakor bat osatzeko.

## 2.2. Sindikatuak

70.eko hamarkadaz geroztik, heziketa profesional iraunkorraren eskubidea nagusi bilakatu da kazetari-sindikatuaren diskurtso, aldarrikapen zein mobilizazioetan. CGT-SNJentzat, kazetariaren heziketa helburu ekonomiko eta sozial funtsezko bilakatu da. FPIk bi funtzio osagarri dauzka, bata bestea bezain garrantzitsua: kazetariaren babespena, aldaketa ekonomikoak eta patronalak ezartzen dizkieten lan-baldintzen aurrean; beren soldaten eta lan-baldintzen hobekuntza, kalifikazioen emendatzea barne. Langabeziaren edo prekarizazioaren garapenarekin (komunikabideen desagerpena, erredakzioen txikitzea, egunkariaren bateratze eta berrerosketen ondorioz) heziketa profesional iraunkorra lanpostua mantentzeko bermea da, komunikabidez, zerbitzuz, funtzioz edo lanbidez aldatu ahal izateko. CGT-SNJk, heziketa profesional kalifikante eta ezagutua eskatzen du. Era berean, FPIren bidez, lan-baldintzen hobetzea eskatzen du, kazetariaren hitzarmen kolektiboak bere kalifikazioak ezagut ditzan, eta hauek postuetan eta soldatan nabaritu dira.

CDFT sindikatuaren eskaera zerbait ezberdina da. Haren iritziz, dimentsio ekonomikoari alderdi politiko zein kulturalak josi behar zaizkio. FPIren bidez, kazetariaren kompetentzia profesionala garatzeaz gain, oinarrizko kompetentziak emendatu behar ditu, hau da, gizartea eta profesioa aldatzeko beharrezko konzientzia. Helburua da enpresaburuek babesten duten heziketa-lanpostuari (baita heziketa-emankortasunari), heziketa-errealizazio pertsonala bikotea hobestea. Ondorioz, CFDTren indarra heziketa iraunkorraren mamian zentratzen da, pentsatzen baitu enpresaburu-organismoak eta botere publikoek eskaintzen dituzten ikaskizunak espezializatu egia eta konformistegiak direla. Une berean, ekiten du kazetari independente eta oro har prekarioak (lan-kontratu mugatua, lan arduraldi partziala, langabezia) heziketa profesional iraunkorrera iritsi daitezen. Halaber, FPIren dimentsio kolektiboa eskatzen du ez dadin behar indibidualera eta lehiaketa interindibidualera mugatu.

Force Ouvrière (FO) sindikatuak, modu praktikoagoan, kazetariak heziketaz atera dezaketelako irabazi profesionaletan jarduten du:

Akzio sindikalari esker, langileak heziketa-oporrak edukitzeko eskubidea daukate, baina ez dira beti hunkituak sentitzen, informazioa partziala baita; heziketak indar pertsonala eskatzen du eta langileek uste dute enpresa barruan igotze bat lortuz saritua izan behar duela.

Hori dela eta, FOK, heziketa akzioa eta erakundearen erabaki komuna aldarrikatzen du, eta independentzia eta balorazio profesional hoberena eskaintzen dituztenak hobesten dituzte. Egitura paritarioetan egindako akzioari garrantzi handia ematen dio: enpleguaren aldeko komisio paritarioak, erregio-komiteak eta heziketa segurtasun-fondoak. Heziketa mota batzuk prentsa-enpresen edo profesioaren laguntzarekin osatu behar dira, baldin eta ikastaroen kalitatea begiztatu

badaiteke. Era berean, heziketen aukeraren askatasunean ekiten du, bai eta zerbitzu publikoaren garrantzian ere, erakundeen aniztasuna segurtatzeko.

CGCK ere, FPIri garrantzi handia ematen dio. Bere helburua da goi-mailako koadroek (zuzendariak, erredakzio-buruek, zerbitzu-buruek) heziketa iraunkorrean parte har dezaten. 1971ko apirilaren 30eko legeak eskakizuna bere gain hartzen du eta irakaskuntza-oporren eskubidea ezagutzen du. Zuzendaritzako pertsonalak kazetari-lana utz dezake astean edo hilabetean ordu batzuetan, klaseak hartzeko eskola zein organismo onetsietan. Oro har, CGCK heziketaren monopolioa eta mamien politizazioa arbuaitzen ditu. Komunikabideetatik datozen formatzaileen presentzia eta ikastaroen edukien behar profesionala azpimarratzen du. SNJK ere bere aldarripenak ditu.

### **2.3. Kazetariak**

70.eko eta, batez ere, 80.eko hamarkadatik gora, kazetarien eskaera emendatzen eta ezberdintzen joan da. Bost logika bereiz daitezke. Lehenik, profesional batzuek FPI terapia bezala aurkezten dute. Izan ere, haustura sozial eta arazo pertsonal edo profesionalen ondorioz, beren nortasun pertsonala eta sozia- lizazioa hunkitua sentitzen dute. Komunikabide baten desagerpen edo uzteak, plan sozialak, prekarietateak, dibortzioak edo haur baten galerak eragin afektibo latzak dauzka. Kazetari horientzat, heziketa norberaren konfidantza berreskuratzeko eta talde batean integratzeko aukera da.

Bigarrenik, kazetari batzuek FPI komunikabide barruan promozioa ezagutze- ko egiten dute. Barne lan-merkatu bat eta igotze-mekanismoak existitzen direnean, ikastaroak promozio-itxaropenari lotuak dira. Erredakzio-buruorde, edizioburu, erredaktore bilakatzeak edo agentzia zentratean lan egiteak hainbat kazetari motibatzen ditu. Alabaina, oztopoak daude, batetik, hautagaiak proposatutako postuak baino gehiago direlako, batez ere zuzendaritzara ailegatu nahi dutenentzat, bestetik, igoerak ez direlako heziketari soilik josiak. Ez dago lotura sistematikorik heziketaren eta promozioaren artean, batez ere komunikabide txiki edo apaletan, baina heziketa jarraitzeak gorapen aukerak handitzen ditu.

Hirugarrenik, heziketa errekonbertsio profesional bezala ageri da, batez ere heziketan dauden langabetuen kasuan. Gehienentzat, langabezia zauri personal bat da eta beren motibazioa eta autoestima bermatuak dira. Lana lehenbailehen aurkitzea dute helburu, nahiz prentsa idatzian, nahiz irratian edo telebistan, bai eta lan kontratu mugatuarekin edo independente gisa ere. Lanpostu bat lortu bezain laster, kazetari askok heziketa bertan behera uzten dute. Aldiz, kazetariak lan-kon- tratu bat badaukate, lehenagoko esperientzia iragaite baikor gisa bizi dute, eta ezagutza eta kalifikazio berriak lortzeko aukera gisa ere bai. Heziketa aukera baten gisa ageri da.

Laugarrenik, heziketaren bidez promozio soziala lortzea espero duten kaze- tariak aurkitzen ditugu. Prentsa-enpresaz aldatzea eta diplomak ematen dituzten kanpoko ikastaroak segitzea eskatzen du. Kazetariaren postua ez denez, bere ingurugiro soziala edota bikoteari egokitua gertatzen da. Aldatze hori oso pizgarria izaten da eta gaueko klaseei, asteburuko lanari zein familia biziaren aldaketari

aurre egiteko ezinbestekoa da. Baina promozio soziala abentura bat da eta gutxi iristen dira bururaino.

Bosgarrenik, heziketa birziklatze modura ikusten duen kazetaririk bada. Lanaren araberakoa da eta exigentzia kultural batean sartzen da. Zuzendari, erredakzio-buru zein ordezkoez mobilitatea ezagutzen dute: barnekoa eta kanpokoak, horizontala eta bertikala, azkarra eta oso azkarra. Maiz, komunikabide, agentzia edo postu batetik bestera doaz hiru edo lau urtez behin eta, ondorioz, birmoldatzeko beharra sentitzen dute. Berrikuntza teknologikoak, gizartearen aldaketak, gestio-mekanismo berriak, erredakzioen animaziorako azken teknikak ezagutzea ezinbestekoa zaie goi-mailan jarraitu nahi badute. Batzuentzat, heziketak, ikastaldi, seminario eta saioen bidez gauzatzen dira. Besteentzat, autoheziketaren itxura hartzen du, egunkari, aldizkari zein liburuak irakurriz, bai eta ikerketa pertsonalak eginez ere.

### 3. Organismoak

70.eko hamarkadatik gora, heziketa-organismoak biderkatu eta ezberdindu dira bai Frantzia bai Pirineo Atlantikoetan ere. CFPJ, INA, kazetarien hitzarmen kolektiboak ezagutzen dituen zentroz gain, ehunka erakunde lortu dira, publikoak eta pribatuak, nazionalak eta lokalak, generalistak eta espezializatuak.

#### 3.1. CFPJ eta beste organismo ezagutuak

1969an, Pariseko CFJ eta Lilleko ESJk, *Centre de Formation Professionnelle des Journalistes* (CFPJ) sortzea erabaki zuten «prentsak, heziketa iraunkorrerako erakunde bat ukan zezan heziketa berezirik ez zuten kazetariak profesionalizatu ahal izateko». «Urteetan zehar, bere publikoa ezberdindu eta bere helburua zabaldu dira. Une berean, bere funtzioa da prentsan ari diren guztiek azken berrikuntza tekniko, erredakzional eta komertzialak hobeki tratatzea eta kazetari berrien heziketarako arduradunak laguntzea. CFPJ prentsa eta ikusentzunezko sektore guztietako pertsonal-kategoria guztiei irekia da: erredakzioa, egintza, gestioa eta salmenta» (Mory & Hugh 23: 47).

Era berean, CFPJk hizkuntza eta informazio zein komunikaziorako klaseak proposatzen ditu, prentsarik kanpokoentzat eta prentsarekin lan egiten duten publikoentzat, hots, komunikazio-zerbitzu, enpresa, herriko etxe, publizitario, animatzaile, eta teknikarientzat. Ikasle-kopurua, 445tik 2200 pertsonara pasa da 1969 eta 1990 bitartean eta 90.eko hamarkadan kopurua handitzen joan da.

1998-1999an, heziketak honako sailetan banatzen dira: management, teknika erredakzionalak, informazioaren mamia eta tratamendua, erredakzio-idazkaritza, informazioaren tratamendu bisuala (maketa, infografia, ikonografia, fotografia), PAOa, irratia, telebista, multimedia, egintza, dokumentazioa eta fotogintza, hizkuntzak.

CFPJ heziketa profesional iraunkorreko beste organismoekin integratua da, hau da, komunikabideei buruzko Informazio Zentroa (enpresa, administrazio eta kolektibitate lokaletan lan egiten duen pertsonen zuzendua), Nazioarteko Kazetarien Zentroa (Frantziako prentsa interesatzen diren kanpoko kazetari norabidetua) eta CFJ. Halaber, Europako Kazetaritzaren Fundazioak, CFPJrekin

batera, kazetari profesionali zortzi hilabeteko ikastaroa eskaintzen die, Europa ezagutu ahal izateko, inkesta eta erreportajeen bidez (Mory & Hugh 1991).<sup>1</sup>

CFPJez gain, kazetarien heziketa hitzarmenak ezagutzen dituen erakunde gehienek FPI praktikatzen dute. Horrela, Marsellaseko kazetari-eskolak bere barnean ikastaroak antolatzen ditu eta Lille-ko ESJ-k nahiago du prensa-enpresetan egitea. Heziketak, komunikabidearen behar berezien azterketatik abiatuz osatuak dira. Eta Estrasburgoko zentroak kazetariendako zein komunikazio munduan lan egiten duten pertsonendako klaseak aurkezten ditu. 1989-1990 urtean, 98 heziketa-egun proposatu ditu.

### 3.2. INA

Institut National de l'Audiovisuel sortu zen irratian eta telebistan lan egiten zuen pertsonala prestatzeko, batez ere ez zuelarik kazetaritza-eskolarik egin. «Komunikazio eta ikusentzunezko lanbideentzako heziketak 70.000 egun-ikasle eta 250 saio adierazten du urtero hainbat formularen bidez: hastapen, hobekuntza, birziklatze eta berkonbertsiorako ikastaro intentsiboak. Heziketa, INAren lankide iraunkorrek, kanpoko aditu eta irrati-telebistako pertsonalek osatzen dituzten ekipo profesional diziplina anitzekoek segurtatzen dute. Ikastaroak, Bry-sur-Marneko zentroan egiten dira, Europako ikusentzunezkoen konplexurik handienez, baita lan tokietan ere». Beren helburua «ikusentzunezko sektore publikoko erakunde frantsesak, kabletik eta uhin hertzianoen bidez ekoizten eta banatzen duten enpresa pribatuak eta irratia zein telebistako profesionalak, munduan zehar dauden 40 herrietan» hunkitzea da.

80.eko hamarkadan, heziketa-ekintzak lanbidearen tresna berriei kazetariak egokitzea izan da. Betacam-ean egindako erreportajeek, irudi-erreportajeen kazetaritza (*journalisme reportage d'images*) iniziatu du. Pedagogia berarekin, baina denbora luzeagoan (20 aste), INAK Frantziako telebista eta irrati-kate publikoen (France 3 barne) langile batzuen errekonbertsioa segurtatu du: hamarnaka kazetari irudi-erreportari (kamerari) bilakatu ditu. Pirineo Atlantikoetako hainbat irrati eta telebistak beren pertsonalen heziketa INAri gomendatu diote. Horrek ez du esan nahi komunikabide askok ez dutenik heziketa-akzio propiorik antolatzen.

1999an, ikastaroen mamia bestelako sailetan banatzen da: management eta ekoizpenaren gestioa; kontzepzioa, idazkera eta errealizazioa; kazetaritza; muntaia eta post-ekoizpena; ikusentzunezkoen teknika; sintesi-irudiak eta efektu bereziak; multimedia eta mikroinformatika, teknika eta soinu-ekoizpena; ikusentzunezko dokumentazioa. Zehazkiago, irudia eta argiaren sailari dagokionez, ikastaroak honakoak dira, hots, fime 16 eta super 16 kamerak erabiltzen jakin, Betacam irudiak hartu, aktualitateko erreportajeak egin, bideo numerikoko kameraren funtzionalita-

---

1. CFPJk heziketak eraberritzen ditu. Adibidez, Pariseko zentroak, "Master of business Administration" (MBA) eta "Journaliste et management de l'entreprise de presse" izenburu duten heziketak sortu ditu. Ikastaroen helburua «kazetari heziketa oso sendoa ematea da management eta gestioan, prentsa-enpresetan goi-mailako eginkizunentzat kalifikatzeko. Erredakzio-buru, zerbitzu-buru, prentsa erregionaleko zuzendari eta prentsa-editoreei zuzendua da. Hamabi pertsona mugatua da eta urte bete irauten du. Hautagaien selekzioa azaroan suertatzen da eta heziketaren kostua 95 000 liberakoa da». *Bulletin du Club de la Presse du Pays Basque*: iraila-urria 1994.

teak, kamera analogiko eta numerikoen funtzionalitateak, argazkilaritzaren eta operadoreen buruentzako praktika berritzaileak, etabar.

### 3.3. CNRJ

*Centre National de Raclassement des Journalistes*, ANPEren (Frantziako INEM) atal berezi bat da. Kazetarien hitzarmen kolektiboak ezagutzen dituen eskoletako diplomatuak eta langabezia dauzen kazetari profesionalak laguntzen ditu. Une guztiz, 1.500 lagunekin lanean dabil eta kazetariak birziklatze eta hobekuntza-ikastaroetara norabidetzen ditu eta organismo publikoekin negoziatzen du heziketaren eta formatuaren finantzazioa segurtatzeko. 1989an, Frantzian, berrehun pertsonak baino gehiagok baldintza horietan heziketa bat segitu dute.

Alor horretan, beste inizatiba asko dago. Adibidez, Amandiers Erreportaje Eskolak, gazteentzako ikusentzunezko departamentuak, Pariseko herriko etxeak lagundurik, urtero hiru hilabeteko hiru ikastaro antolatzen ditu irudi-erreportari ala kamerari izateko. 30.000 libera inguru balio dute eta langabezia dauzentzat, pedagogi gastuak eta soldatak bere gain hartzen ditu.

### 3.4. Organismo pribatuak

80.eko hamarkadan, heziketa erakunde pribatuen kopuruak nabarmen gora egin du bai Frantzian bai Pirineo Atlantikoetan. Hitzarmenen sistema oso ongi egokitzen zaio organismoen, publikoen eta estatutuen ezberdintasunari. 1970ean, helduen heziketarako institutu nazionalak 3.500 organismo zenbatzen bazituen; 1984an, heziketa profesional iraunkorrerako organismoen obserbatorioak 9.740 kontatzen zituen. Jean Goasguen parlamentarioak egindako txostenaren arabera, 1994an, 40.500 aurki daitezke, horietatik 26.500 benefiziarioak izanik.

Hala ere, lortutako kontratuak erakunde batzuetan biltzen dira. 1981an, Cereq-ek egindako ikerketa baten arabera, bi organismo motak merkatuaren gehiena monopolizatzen dute: ASFOek eta erakunde kontsularrek. 1994ko uztailaren 5eko akordioaren helburua FAF, ASFO, OMA eta OCAREN arteko diferentziak desagertzea da, sistema errazteko eta bi motatara mugatzeko. Batetik, sektoreka nahiz maila interprofesinalean, maila nazional nahiz interregionaleko erakunde paritario onetsiak (OPCA). Heziketa plan, aldizkatze eta heziketarako denbora kapitalerako fondoak jasotzen ditu. Bestetik, heziketa indidualerako oporrez (FIO) arduratzen diren organismo paritario onetsiak. FIOraiko eta kompetentzia bilanerako (KB) finantzazioak biltzen ditu.

Baina erakunde pribatu guztiak ez dira komunikabideekin lanean ari. Horietatik batzuk, modu espezializatuan ala ez, hainbat prentsa, irrati eta telebistarekin adostasuna daukate. ADEPFOren (*Association de Développement des Pyrénées par la Formation*) adibidea esanguratsua da. Bere helburua, errealitate hurbilean diren heziketa eta garapen proiektuak sortzea da, baldin eta garapen ekonomiko egitasmoen alde jotzen badute. Piloto edukatibo moduan, garapen egitasmoaren osatzea laguntzen du eta, batez ere, heziketa egoki bat zehaztu du. Zuzendaritza-komite bat sortzen du, heziketaren osaketa, onarpena eta ikuskatzea ziurtatzeko. Behin osatuta, egitasmoa Administrazio Kontseiluari aurkeztua zaio. Bere barnean

aurkitzen dira Estatua, Erregioa, CIDAP, enpresaburu zein langile-sindikatuak, ganbera kontsularrak eta herri-organismoak.

Horrela, ADEPFOk, Euskal Irratien (Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza batzen dituen egitura) egitasmo radiofoniko, tekniko eta egiturakoa onartu du. Elkarrekin, heziketa-plan bat osatu dute kazetariak zein animatzaileak profesionalizatzeko. Lehendabiziko fasea, Euskal Kultur Erakundearen gidaritzapean, 1998ko lehen hiruhilekoan gauzatu da eta bigarren atala onartua izan da. Lehen heziketa, 18 pertsonari zuzendua, Donibane Garazin, Baigorri, Baionan eta Maulen suertatu da. Helburua irrati generalista baten programazioa osatzen duten osagai guztientzako sortzea eta gauzatzea zen. Bigarren heziketak hainbat kide batzen zituen; errealizatzaileen heziketa hobetzea nahi zuen, hau da, programak (informatiboak batez ere) sortzea eta errealizatzea (Objectif Pyrénées 1998).<sup>2</sup>

#### 4. Publikoak

80 eta, batez ere, 90.eko hamarkadatik at, heziketa profesional iraunkorreko kazetari publikoak biderkatu eta ezberdindu dira, bai Frantzia bai Pirineo Atlantikoetan ere. Izan ere, ikasleen kopurua orokorki emendatzeaz gain, publiko berriak FPIz gozatu ahal izan dira.

##### 4.1. Ikusentzunezkoen sektore publikoko kazetariak

Hala France 3 Pays Basque eta Aquitaine nola Radio France Pays Basque zein Pau Béarn-eko kazetariak, heziketa profesional iraunkorrera errazki heltzen dira 80 eta 90.eko hamarkadetan. Urtero, kazetariei heziketa-zerrenda bat aurkeztu diete interesatzen zaizkien ikastaroak aukeratzeko. Erredakzio-buruarekin, kazetari bakoitzak bere nahiak aipatzen ditu eta elkarrekin ikusten dute zein diren egokienak kazetari, prentsa-enpresa eta erredakzioarendako, plana, finantzazioa eta heziketaren mamia ikusi ondoren. Une berean, komunikabideak heziketa-plan bat martxan jar dezake, materialaren aldaketaren ondorioz maiz. Kasu guztietan, lan-kontratu mugatuek edo kazetari independenteek ordezkatzeko dituzte.

France 3k 1998an proposatutako heziketa-egitaraua sei sailetan banatzen da: ekoizpenaren gestioa eta zuzenbidea; irudia, argitzea, argia, irudien eta soinuen hizkuntza; kazetaritza, komunikazioa eta dokumentazioa; muntaia; soinua; bideoa. Horrekin batera, beste organismo batzuek aurkeztutako ikastaroak ere aurki daitezke, besteak beste, Baionako Komertzio eta Merkatal Ganbarek (KMG) eskaintako informatika-klaseak. 1998-1999 urtean, Windows 95eko Word 7, Excel 7 eta Works 4endako hasiera, hobekuntza edo trebakuntza profesionalaz gain, KMGek Internet, PAO programa eta mikroinformatikarako hasiera eskaintzen zituen.

Radio France-k ere antzeko egitaraua eskaintzen dio bere pertsonalari. Mota guztietako heziketak dira eta enpresak berak nahiz erakunde publikoek zein pribatuek segurtatzen dituzte. Irrati publikoak, Mullen-en heziketa zentro bat zeukan,

---

2. Horrez gain, Unibertsitate eta eskola handiek heziketa bereziak aurkeztu dituzte. Adibidez, Rennes-eko Zientzia Politiketako Institutuak, "Zuzenbidea eta prentsa idatziaren gestioa" izenburu duen DESSa (*Diplôme d'Études Supérieures Spécialisées*) proposatzen du 1998ko urtariletik at. Erredakzio, administrazio eta finantzako idazkari nagusiei zuzendua da, bai eta zuzendaritzako kompetentziak lortu nahiko luketen kazetariei ere.

erakasle, material eta erraztasun guztiekin. Baina, garestiegia zen eta ikastaroen kalitatea eta irekidura eskasa, eta enpresako erakasleak izanak uztera eraman du. Gaur egun, heziketa gehientsuenak kanpoko erakundeek antolatzen dituzte, CFPJik batez ere. Une berean, Radio France-k heziketa zehatz eta praktikoen abiaburua da. Adibidez, 1999an, Radio France Pays Basque-k hiru eguneko informatikako heziketa bat antolatu du, hilabete barru material guztia ordezkaturia izan baita, numerikora pasatzeko. Bi egunerako, kazetariak heziketa-zentrora joan dira eta, hilabete baten ostean, formatzaileak erredakziora etorri dira material berriaren erabilpena ona den ala ez ikusteko.

Kazetari batzuen heziketa profesional iraunkorra aipa dezagun, Radio France Pays Basque-eko erredakzio-burua adibide dela.

Kazetaria naizenetik, heziketa asko segitu ditut, hala nola, ahotsa eta idazkera, irriti lokal baten gestioa eta zuzentzea. Azken hori zuzendaritzako kazetariei norabidetua da. Interakzio konkretu batzuei ihardukitzea eskatzen ziguten eta ondoren elkarrekin hitz egiten genuen jakiteko ea modu egokian ihardetsi genuen eta ea bestela egin zitekeen. Krisi-egoerei aurre egiten jakiteko. Horrekin batera, nire kabuz formatu naiz. Adibidez, France Infoko zientzia eta tekniketako kazetari ezpezializatua nintzelarik, zientziak ikasi nituen; egun osoak igarotzen nituen Ariane Space-n eta sateliteak eta suziriak nola funtzionatzen zuten azaldu zidaten. Astronautekin ere biltzen nintzen eta ordu asko pasatzen nituen Pariseko Fisika eta Kimikako Eskolan ikerlariekin solasean.

Komunikabide horietako zuzendaritzek beren kazetariak heziketak segitzera bultzatzen dituzte. Radio France Pays Basque-ko erredakzio-buruak dioenez, «erredakzioko kideak ikastaroak egitera gonbidatzen ditut, batez ere agentzia, postu edo funtzio berean aspaldidanik daudelarik. Errealitatea eta ezagutzak oso azkar aldatzen direnez, beharrezkoa da eraberritzea». Batzuek kritika bezala bizi badute ere, gehienek aukera eta aberastasun erara sentiitzen dute. Aurreratzeko eta beren lanean hobetzeko modu bezala ikusten dute. Era berean, eguneroko praktikatik distantzia hartzea uzten du, egindako akatsei pentsatzeko aukera ematen du, bai eta lan metodoen inguruko eztabaidak zein trukaketak egiteko ere.<sup>3</sup>

## 4.2. Prentsa erregional eta departamentaleko kazetariak

80 eta 90.eko hamarkadetan, heziketa profesional iraunkorra nabarmen garatu da prentsa erregional eta departamentalean. Ordura arte, heziketa iniciala eta esperentziaduna nagusi baziren, hortik aurrera jauzi handia suertatu da plan eta heziketa indibidualen biderkatze eta ezberdintzearekin. 1999an, legearen arabera, pertsonalaren heziketarako 300.000 libera gastatu behar badu, Pyrénées Presse-k 600.000 libera irabazi ditu: bikoitza. Horrez gain, bi milioi liberako treba-

---

3. Radio France-ko heziketa profesional iraunkorraren politika aldatzen joan da. 1968 arte, heziketa barne-promozio eta goi-mailako funtzioen inguruan oinarritua zen. Enpresaren klima sozialarentzat funtsezkoa zen. Horrez gain, ikusentzunezkoak garapen galanta izan zuen 60.eko hamarkadatik gora eta ikastaroek loturak sortzen zituzten zerbitzuen eta funtzioen artean. 1970etik at, hezkuntza nazionalean izan diren aldaketek eragina eduki dute. FPI, karrera-bilakaeran kontuan hartuak izan zitezkeen balioen batasunen inguruan antolatu da. Halaber, ORTFen zatiketak, balioen batasunaren sistema hil du, enpresa bakoitzak berea baitzeukan. Hori dela eta, INAK teknika zein ekoizpeneko pertsonalaren heziketa heredatu du. Kazetariarentzat, aldiz, Radio France-k Melun-en zentro bat sortu zuen, batez ere lokaletako kazetariei zuzendua.

kuntza-plan bat onartu du, berrikuntza teknologikoei aurre egiteko: formatu berria, informatika sistemaren aldaketa, eta abar. Plana finantzatzeko, Prensaren Modernizazio Fondoa eta Europako Fondo Soziala galdetu ditu eta lehenak 300.000 libera ematea onartu du.

Urtero, Sud Ouest, République des Pyrénées eta Éclair Pyrénées-k, heziketa-zerrenda bat aurkezten diete beren langileei, kazetariak barne, eta eskatzen diete atsegin dituzten ikastaroak hautatzeko. Ondoren, kazetari bakoitza Informazioaren Zuzendariarekin edo agentziako buruarekin biltzen da, egindako aukeraz hitz egiteko eta ikusteko ea denei komeni zaien<sup>4</sup>. Behin finkatuta, komunikabidearen heziketa-plan batean kokatzen da eta enpresa-komiteak (zuzendaritza eta pertsonalen ordezkariak batuz) bere onarpen ala arbuioa bozkatzeko.

Prensa-enpresak heziketaren inizatiba har dezake. Horrela, Pyrénées Presse-k, 1999ko irailean eta urrian, heziketa-plan bat osatu du bere aurrekontu, luzaera, mamia zein erak zehaztuz. Ikastaldiak hiru egun iraun du, bost egun erre-dakzio-idazkarientzat eta egun bat erredaktoreentzat, eta Pyrénées Presse-ren egoitzan kokatu da. Erakasleak Pau-era joateaz gain, kazetari batzuk hobeki formatu ditu gero beraiek lankideak lagun ditzaten arazo bat suertatzen delarik eta eginbehar bat gaizki ulertu dutelarik. Ondoren, lan-taldeak osatu dira ikasitakoaren eta eguneroko praktika profesionalen inguruan hausnarketa egiteko.

Heziketa barneko eta kanpoko erakundeek ziurtatzen dute. Sud Ouest Pays Basque-tik jubilatua den agentziaburu batek dioen modura:

80.eko hamarkada arte, ikastaro gehienak egunkariak antolatzen zituen. Segitu ditudan heziketak 1982 baino lehenago izan dira, bata kazetarien oinarriari buruz eta, bestea, "irakurria izateko idatzi" izenburukoa. Azken kasuan, esaten ziguten irakurleentzat eta ez norberarentzat idatzi behar zela eta kazetari-idazkeraren funtsak zehaztu zizkiguten. Ostean, Parisen erreportajeak egiten genituen eta 100, 50 zein 10 lerroko artikulua idatzi ere. Baina, gaur egun, geroz eta gehiago, kanpoko organismoek egiten die Sud Ouest-ek.

Kazetari batzuen esperientzia aipa genezake, Sud Ouest Pays Basque-ko erredaktore baten adibidea hartuz:

Orain arte, Sud Ouest-ek antolatutako ikastaroak jarraitu ditut, besteak beste, adituei, aurrekontu munizipalei, kontseilu munizipalei buruz, bai eta ahotsa eta idazkerari buruz. Geroan, nahi nuke CFPJk eskaintzen dituen heziketak segitu, batez ere, galdera judizialak, kriminal eta korrekzionaleko arazoei buruzkoak; eta epaileekin hobeki lan egiteko ikastaroetan parte hartu nahi dut. Galdeak egin ditut, ikastaro horiek berriak baitira. Heziketa profesional iraunkorra nire gaitasuna handitzeko, beste agentzietako lankideak ezagutzeko, beraiekin solasean ibiltzeko eta gure eskubide zein eginbeharrak zehazteko parada da.

### 4.3. Prentsa lokaleko kazetariak

Prentsa lokalean lan egiten duten kazetariak ere heziketa profesionalera iristen dira. 1975 arte, Le Courrier de Bayonne, Côte Basque Soir, La Nouvelle

---

4. Pyrénées Presse-ko zuzendariak dioenez, «orokorki, kazetarien eskakizunak onartuak dira egiten duten lanarekin gutxienean lotura bat badaukate. Adibidez, kanpoko (espainola edo ingelesa) nahiz tokiko hizkuntzak (biarnesa) ikasteko heziketak onartzen ditugu».

Gazette de B arritz eta Le Républicain du Sud Ouest egunkarietako kideek ez zuten heziketa profesionalik segitzen. Diru asko kostatzen zenez, ordezkari gutxi zuten eta esperientziatzko hezkuntza hobesten zuten; ondorioz, zuzendariek ez zioten interesik ikusten FPI garatzeari. 1993an aldiz, La Semaine du Pays Basque astekariaren sorrerarekin batera, prentsa lokala heziketa iraunkorra erabiltzen hasi da eta, azken urteetan, garatzeko nahia agertu du zuzendaritzak eta heziketa-kredituak ditu.

Astekariak ikastaro bat antolatu zuen sortu eta gutxira, Lille-ko École Supérieure de Journalisme-ko irakasle bat Baionara etorri zen hiru eguneko heziketa bat ematera. Talde txikietan lan egin zuten praktika profesionalari buruzko hausnarketa bat burutzeko. Halaber, idazkera, laburpenak eta izenburuak ere landu ziren, baita informazioaren aukera, kokapena zein tratamendua ere. Kazetari-teknikak hobetzeaz gain, seriotasun eta zorroztasunaren beharraren kontzientzia hartzeko baliagarria izan zen. Baita, publikoarentzat idazten dela eta ez norberarentzat.

Une berean, kazetari bakoitzak ikastaro zehatzak segitzeko eskakizun bereziak egiten ditu. Ondokoa dio La Semaine du Pays Basque-ko erredaktore batek:

Aurten, ikastaro intentsiboak egiten ditut bai espainolez bai euskaraz. Espainola ikasteko, GRETAn izena eman nuen baina, ez baitzitzaidan komeni, Baionako Komertzio eta Merkatal Ganberan matrikulatzea erabaki dut. Euskararen kasuan, AEKko klaseak jarraitzen ditut, erakunde horrek kazetariei zuzendutako heziketa berezi bat antolatu baitu (ordutegi, kopuru, mami aldetik). Lehendabizikoa astekariak finantzatzen du baina bigarrena ez, ez baititzaket bi ikastaro une berean egin.

Baina zailtasunak aurkitzen dituzte. Lankide batek beste hau dio:

Oso latza da eguneroko lana eta ikastaroak batzea. Erredakzioan kazetari gutxi garenez, bakoitzari dagokion lan-zama eta ordutegia astunak dira oso. Denbora guztia gai, solaskide eta alor batetik bestera goaz, gelditzeko astirik eduki gabe. Horrez gain, kazetari bat heziketara badoa, zuzendaritzak ez du nahitaez ordezkutzen, ez dagoelako meneko erredaktore independenterik edo ez dituelako pertsonal-gastuak emendatu nahi. Hori dela eta, bakoitzari dagokion lan zenbatekoa handitzen, kalitatea gutxitzen eta estresa metatzen doaz.

#### **4.4. Mugaz gaindiko prentsako kazetariak**

Kazetari horiek heziketa profesional iraunkorra segitzen dute. 70 eta 80.eko hamarkadetan ez bezala, non korrespontsal lokalek ez zituzten titularren eskubide berak, Iparraldeko agentzietan lan egiten dutenek ikastaroak jarrai ditzakete organismo formatzaile pribatu zein publikoetan. Gara adibidez, frantses legediko dispositibo ezberdinak aztertzen eta, egokiak badira, erabiltzen ari da. Soldaten zati bat estatuak bere gain hartzeaz gain, kazetariak formatzen ditu eta profesioak ezagutzen duen titulu bat jaso dezakete.

Gara-ko kazetari baten adibidea esanguratsua da:

Gara-n, kazetari-ikasle gisa sartu nintzen. Ipar Euskal Herriko aktualitatea aipatu behar nuen, nire lanki-dearekin batera, baita berak formatua izan ere. Hilabeteak joan ahala, benetako lan-kontratu eta segurtasun sozial gabe aurkitu naiz.

Beraz, frantses legedien arabera, nire egoeraren erregularizazioa eskatu dut. Asteetako eztabaidaren ostean, Gara-k bi urteko kalifikazio-kontratua proposatu dit, eta lana eta heziketa batu egiten ditu.

Euskaldunon Egunkariko erredaktore baten kasua bestelakoa da:

Leioako unibertsitatean kazetaritzako ikasketak egiten ari nintzela, Egunkariak irekitako azterketa batera aurkeztu nintzen. Sei hilabetez ordezkari izan eta, Baionako agentzian integratu nintzen, tituludun baten joatearekin eta, une berean, ikastetak amaitu nituen. Geroztik, postu, funtzio, alor antzekoak betetzen ditut agentzia berean. Eraberritu eta espezializatu nahian, Lille-ko Ecole Supérieure de Journalisme-en Zuzenbideko Lizentzian izena eman dut. Korrespondentziaz burutzen denez, lana eta ikastaroak adosten uzten dit.

Baina oztupoak larriak dira.

#### **4.5. Irrati lokal pribatuetako kazetariak**

80. eta, batez ere, 90.eko hamarkatik at, irrati lokal pribatuek heziketa profesional iraunkorrerako sarbidea ukan dute. Sortutako dispositibo, organismo eta eskaerak erabili dituzte ikastaro orokor nahiz espezializatuak egiteko. Irrati libreak, bakarrik edo beste batzuekin batuz, erakunde publikoek lagundurik nahiz ez, FARL bezelako sindikatu profesionalen sustenguekin edo ez, FPIerako eskakizunak biderkatzen doaz. Beren profesionalizazioa eta garapena ziurtatzeko ezinbestekoa da.

Euskal Irratiak heziketa-plan bat martxan jarri du. Adepfo erakundearekin, Euskal Kultur Erakundearen gidaritzapean eta botere publikoen finantzazioarekin osatua izan da. Hiru urtez igaroko den “hurbileko irratirako errealizatzaileen heziketa” gauzatzea du helburu, langile guztiek heziketa berezi bat eduki dezaten. Oro har, 1998an 144 ordu, 1998an 160 ordu eta 2000 urtean 104 ordu izan dira.

Ikastaroa bi ataletan bereizten da. Lehendabizikoan, kompetentzia komunak jorratzen dira, hau da, elkarrizketa, egitasmo pertsonala (helburuak, estrategiak), talde bizia (boterea eta energia talde barnean, habitus eta ibilbide soziala) baita soinua eta tratamendua, magazinaren errealizazioa, radiofonia. Bigarrean, irratii-informazio kompetentziak sakontzen dira, hots, informazioa (testua, izenburua, gaia, minimagazina), informazio-buletinak (aurkezpena eta gaiak) eta erredakzio-lerroa (angeluak eta gaien banaketa, asteko planifikazioa, gertakizunak zein dosierrak).

Anglet FM irratia ere erregulariki heziketa-plan bat antolatzen zuen. Lehendabiziko ikastaroez hilabete irauten zuten eta kazetaritzaren oinarriak ikasten zizuten: gaien, angeluen, kokapenaren eta luzeraren aukera; informazioaren tratamendua (zuzenketa, bazter egotea, inpartzialitatea); kazetari idazkera, esan nahi baita estilo trinkoa, esaldi motzak, datuetara mugatzea. Deontologia profesionala berenganatzeko modua eta polibalenteak izateko era zen. Heziketa FDAS<sup>5</sup> erakundeak ziurtatzen zuen, Anglet FM-eko zuzendariaren arabera.

---

5. FDAS 1972ko irailaren 12an sortu zen. Geroztik, garapen iraunkorra izan du, hots, % 15 eta 20ko gorakada urtero. 1977an, 10 milioi libera gestionatzen bazituen, 1993an, 312 milioi liberako kotizazioa dauka, erregimen guztiak kontuan harturik. FDASen berezitasuna mutua-sistema bat sortzea izan da, 1972ko legea ez aipatu arren. Horrela, eskatutako ikastaroen heziketa gure gain har dezake eta

Baina ikastaro gehienak indibidualak dira. Radio Oloron-eko zuzendariaren adibidean bezala:

Heziketak jarraitu ditut GRETAn, bestak beste, Europa eta ingelesari buruz. Laster, informatikan, 50 orduko ikastaro bat egiteko asmoa dut eta FDASek (urtero FIOraiko kotizatzen duen fundazioa) bere gain hartzen du. Ikastaro honek bi mila libera balio du, Oloron-en suertatzen delako, baina CFPJin, Bordele zein Tolosan (Toulouse) gertatzen direnak asko garestiagoak dira.

Hala ere, kasu batzuetan, kazetari horiek ez daukate heziketa profesional iraunkorra erabiltzeko ahalmenik, Radio Bayonne adibide dela.

Irratiak ez zuen heziketa-planik osatzen ez eta ikastaro berezirik ere. Administrazio Kontseiluak (AK) ez zuen behar hori kontuan hartzen eta kazetariak ez zioten eskaera berezirik egiten, beharra hor izan arren eta FPIrako kuota ordaindu arren. AK-ak logika ekonomiko eta politikoen arabera funtzionatzen zuen, diru gutxi gastatu nahian eta irratia erakusleho baten erara erabili guraz.<sup>6</sup>

#### 4.6. Kazetari independenteak

Kazetari hauek ere heziketa profesional iraunkorrera ailegatzen dira, maila ahulagoan bada ere. 80 eta 90.eko hamarkada arte, independenteek ez zeukaten eskubide hori, ez baitzuten fondoetarako kuotarik ordaintzen eta, uneka edo maiz, lan egiten zuten komunikabideek ez baitzituzten heziketa-planetan sartzen. Egoera aldatu da, zeren independenteek profesioaren % 20 inguru osatzen dute eta kazetarien sindikatuak beren interesak kontuan hartzen eta babesten hasi dira.

Lan-kontratu mugatua dutelarik, FPIren eskubidea dute, batik bat prentsa-enpresa handietan daudelarik. Beste lankideentzat bezala, heziketa-egitaraua jaso eta beren aukerak egiten dituzte. Ondoren, zuzendari edo erredakzio-buruarekin hitz egiten dute, eta bakoitzaren motibazio eta interesak kontuan hartzen dira. Maiz, enpresaburuari komeni zaion ikastaldi praktikoa zein espezializatua hobetsia da, independentea ez baitago ezer hertsatzeko egoeran.

Kontraturik ez dutenek beste bide batzuk aukeratzen dituzte. La République des Pyrénées-entzat lan egiten duen independente baten kasua adierazgarria da.

DUTa lortu eta kazetaritza-eskoletara sartzeko oposizioa pasa gabe, CFPJra jo nuen. Komunikabideek ez nindutenez kalifikazio-kontratuan onartzen, elkarte bati eskatu nion ea ados zen ni kontratu horretan hartzeko. Bi hilez behin, 15 egun Pariseko eskolan igarotzen nituen eta hori bi urtez.

La Semaine du Pays Basque-erako lan egiten duen independente baten adibidea bestelakoa da.

---

enpresen heziketa-planak kazetariei emanak zaizkie. Gaur egun, erregimen guztiak gestionatzen ditu: aldizkako heziketak, heziketa-planak, heziketa indibidualerako oporrak (FIO). Erregimen bakoitza aktibitatearen herena da. FIOri dagokionez, lan-kontratu mugatua dutenei aplikatzen zaie 1989az geroztik. Eskaerak benetan eztanda egin du: 31,5 milio libera 1992an eta 57,8 milio libera 1993an, hau da, % 82ko garapena. Eta hori kotizazioak mantendu arren (53 milio libera 1992an eta 52,5 milio libera 1993an). Horrez gain, AFDAsek 48 pertsona lanarazten ditu eta bi erronka nagusi ditu, bata, heziketa-erakundeen batzea gehiegi baitaude, bestea, berrikuntza teknologikoei sortutako aldaketei aurre egitea.

6. Radio Bayonne-ko zuzendariaren elkarrizketa.

Astekariak heziketaren finantzaketa bere gain hartu ez arren, euskara menperatzeko ikastaro bat jarraitzen dut AEK-an. Beharrezkoa da zeren tratatzen ditudan gaiak Ipar zein Hego Euskal Herrian kokatzen dira. Adibidez, bi orrialdeko artikulua bat prestatzen ari naiz La Semaine du Pays Basquerentzat Herri Telebistei buruz. Hori dela eta, Iruneko Txingudi Telebista eta Arrasate Telebistako kideekin bildu naiz eta elkarrizketatu ditut. Euskara jakiteak harremanak errazten ditu eta konfiantza-giro bat sortzen du. Halaber, Euskal Herriaren beste irudi bat eman nahi dut, batez ere kanpoan bizi direnentzat.

Baina, askotan, oztopoak gaindiezinak dira. Prentsa-enpresa gehienek ez dute ikastaroak ordaintzea onartzen, garesti ateratzen zaielako eta ez dutelako agian inbertsioaren fruiturik jasoko. Okerrago, zuzendari batzuek ez dute onartzen independenteak ez eskupean izatea heziketa bat segitzen ari direlako. Ez diete berriro dei egiten. Independenteen aldetik, heziketa gehienak, batik bat kazetarien hitzarmen kolektiboak ezagutzen dituen organismoek eskaintzen dituztenak, oso garestiak dira (5.000 eta 10.000 libera artean bost egunetarako). Oro har, dauzkaten soldatak xumeak dira prezio hori ordaintzeko.

## 5. Konklusioa

Artikulu honetan erakutsi dugun moduan, kazetarien heziketa profesional iraunkorrak biderkatze eta ezberdintze mutazio bat ezagutu du dispositibo, organismo, eskaera eta publikoen aniztasun eta diferentziazioarekin. Hala ere, komunikabide eta kazetari batetik bestera alde handia dago. Batzuentzat, praktika arrunta bada, urtean hiru ikastaro egin baititzakete, besteentzat, salbuespena da eta, hainbatetan, beraiek ordaindu behar dute. Hala eta guztiz ere, berrikuntza teknologikoak, informazioak gizartean duen tokiak eta gertatzen diren aldaketek heziketa profesional iraunkorrari gero oparoa ziurtatzen diote.

## Bibliografia

- Actes du colloque, (1989): *Les formateurs d'adultes et leurs qualifications*, CUEEP-FCEP, Lille.
- Bédoué, C. eta Espinasse, J. M., (1995): "France: politique éducative, amélioration des compétences et absorption des diplômés par l'économie", *Sociologie du travail*, 4. *Bulletin du Club de la Presse du Pays Basque*, maiatza-ekaina 1997.
- Cereq, (1995): *Stastiques de la FPC financée par les entreprises. Traitement annuel des déclarations d'employeurs*, Paris.
- CFPJ: *Formations 1998-1999*, Paris.
- Cléménçon, M. eta Coutrot, L., (1995): "La relation formation-chômage. France: quelques résultats d'analyse secondaire et bilan bibliographique", *Sociologie du travail*, 4.
- Commissariat Général du Plan (1985): *Développer la formation professionnelle. La Documentation française*, Paris.
- Dossiers de l'audiovisuel (1994): "Politiques de formation", 56, uztaila-abuztua.
- Dubar, C., (1985): "Mutations technologiques et formation; discours, réalités, paradoxes", *Éducation permanente*, 81.
- , (1986): *La formation professionnelle continue en France 1970-1980. Une évaluation sociologique. Aux amateurs de livres*, Paris.
- , (1989): *Innovation et transformation de la socialisation professionnelle dans et par l'entreprise*, Lastree, martxo.

- , (1996): “La sociologie du travail face à la qualification et à la compétence”, *Sociologie du travail*, 2.
- Feutrie, M.; Verdier, E., (1993): “Entreprises et formations qualifiantes: une construction sociale inachevée”, *Sociologie du travail*, 4.
- France 3 (1998): *Programmes de formation continue*.
- Garraud, P., (1995): “La mise en oeuvre des politiques de lutte contre le chômage par la formation: les contraintes du service public de l’emploi en France”, *Sociologie du travail*, 4.
- INA (1999): *Formation image, lumière*.
- Koechlin, H.F., (1990): *Le droit à la formation continue. Librairie générale de droit et de jurisprudence*, Paris.
- Legeak: 71-575 (1971-ko uztailaren 16-a) eta 84-130 (1984-ko otsaileko 24-a) zenbakiak.
- Luttringer, J-M., (1975): *Le droit des travailleurs à la formation permanente*, Armand Colin, Paris.
- Maupeou-Aboud, N., (1980): “Les politiques patronales de formation et leurs finalités”, *Sociologie du travail*, 2, apirila-ekaina.
- Mehaut, P., (1982): *Syndicats, patronats et formation. Les fonds d’assurance formation des salariés*, Presses Universitaire de Nançy, Paris.
- Montlibert, C., (1977): “L’éducation permanente et la promotion des classes moyennes”, *Sociologie du travail*, 3, uztaila-iraila.
- Mory, P.; Hugh, S., (1991): *La formation au journalisme en Europe. Connaissances des médias*, CFPJ, Paris.
- Mory, P.; Hugh, S.: “La formation professionnelle aux métiers de l’audiovisuel”, *Problèmes audiovisuels*, 23.
- Objectif Pyrénées (1998): *Le magazine des citoyens et des institutions pyrénéennes*, 24, urria.
- Palhous, J, Vergnaud, G. (1989): *Adultes en reconversion: faible qualification, insuffisance de la formation ou difficultés d’apprentissage. La Documentation française*, Paris.
- Paradeise, C., (1987): “Des savoirs aux compétences: qualification et régulation des marchés du travail”, *Sociologie du travail*, 1.
- Regini, M., (1995): “Demande en ressources humaines et institutions de formation dans quelques régions européennes”, *Sociologie du travail*, 4.
- Sainsaulieu, R., (1974): “L’effet formation dans l’entreprise”, *Esprit*, urriko zenbaki berezia.
- Schwartz, B., (1981): *L’insertion sociale et professionnelle des jeunes. La Documentation française*, Paris.
- Tanguy, L., (1986): *L’introuvable relation formation-emploi. La Documentation française*, Paris.
- Verdier, E.; Podevin, G., (1989): *Formation continue et compétitivité économique*, CEREP, 51, iraila, Paris.
- , (1990): “L’efficacité de la formation continue dans les PME”, *Sociologie du travail*, 3.
- Voisin, A., (1988): *La formation professionnelle en France. Office des publications des Communautés européennes*, Luxemburgo.